

8.FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko gauza garrantzitsuenak, kalitate oneko aplikazio bat eskaintzea eta bezeroekiko harreman ona edukitzea izan dira. Dena kalitatezkoa izan dadin, informatikari on bat kontratatu behar izan dugu. Bideo onak eskaintzeko, horretan aditua den norbait ere behar izan dugu.

Gainera, ikastetxeetara bisitak egitera joan ginen. Bertan ikasleei zein irakasleei gure proiektuaren azalpenak eman genizkien eta beren beharrak asetzeko aholkuak eman zizkiguten. Honi esker, gure aplikazioa hobetu, eta azkenean kalitatezko produktu bat merkaturatzera iritsi ginen.



Webgune bat sortu eta hainbat sare sozialetan kontuak ireki genituen, bertan IkasBideo aplikazioan aurki daitekeenaren informazio guztia aurki dezakete gure bezeroek. Bestalde, noizbehinka jartzen ditugun eskaintzen inguruan edo egindako eguneratzeen berri ematen diegu gure bezeroei.

